



2016 AZAROA - AUZO BATZARRAK
ASAMBLEAS MUNICIPALES - NOVIEMBRE 2016

Auzoa Barrio	LATORRO
Data Fecha Ordu tegia Horario Lekua Lugar	2016-11-15 19:00 – 18:45 Eskolak
Asistentzia Asistencia	<p>*Ordezkaritza politikoa representación política</p> <ul style="list-style-type: none"> -Jon Iñaki Urkixo Orueta – EH BILDU (Alkatea) -Jon Ander Altube Lazkano – EH BILDU -Ametz Meaza Castañares – EH BILDU -Isabel Bóveda Urioste- EH BILDU -Iñigo Martinez Cerrillo – EH BILDU - Juanma Ibarretxe Revuelta EAJ-PNV -Nerea González García - OMNIA -Txaro Sarasua Díaz – PSE-EE -Iñigo Pedruzo Abasolo - PP <p>*Udal teknikariak técnicas/os municipales</p> <ul style="list-style-type: none"> -Almudena.... ..Arquitecta Municipal. -Laura Castresana Iglesias – Arquitecta técnica municipal -Joseba Solaun Solana – Encargado de Obras del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y M. R. <p>*Idazkaria secretaria/o</p> <ul style="list-style-type: none"> -Patxi Arregi Añibarro <p>*Dinamizatzailea moderador/a</p> <ul style="list-style-type: none"> -Epi Zurimendi Galdos <p>*Auzokideak vecinas/os</p> <ul style="list-style-type: none"> -guztira total 17 -emakumezkoak 5 -gizonezkoak 11 -Kazetariak 1
Gai-ordena Orden del día	<p>1_ Aurkezpena presentación (Natxo)</p> <p>2_ Aurrekontu parte hartzaileak Presupuestos participativos (Ametz)</p> <p>3_ Egindakoaren berri eman Dar cuenta (Jon Ander)</p> <p>4_ Galderak Preguntas</p>

3.- GALDERAK

Auzoko batek galdetu du antzokiaren eraikuntza zertan den eta proiektua zaharretik zerbait aprobetxatuko ote den diru aurrezteko.

Jonanek erantzun dio proiektu zaharretik datuen kontuak eta ahalkoak aprobetxatu beharko direla, baina ezin dela proiektu zaharra antzoki berria eraikitzeko oinarri gisa hartu, izan ere, proiektu zaharraren egikaritze-kostua 15.000.000 eurokoa zen, hau da, orain egin nahi denaren hirukoitza gutxi gorabehera eta, agerikoa denez, proiektu zaharrean jasotakoez bestelako prestazioak izango ditu berriak.

Auzokide batek Latiarron martxan dauden proiektuez galdetu du; auzoan kirol pista bat eraikitzekoa, azpiegituren ingurukoak, lur azpiko igarobidearen sarreran dauden kartel-euskarriak handitzearena, auzoaren alde zaharrean egiturazko plaza egitearena...

Jonanek azaldu du, kirol pistari dagokionez, indarrean dagoen udal aurrekontuan aipatutako pista eraikitzeko ikerketarako diru-partida bat ipini dela; ideien lehiaketa bidez egiteko asmoa dago, esaterako, Goikogane kalearen parean. Laudioko edo eskualdeko arkitekto batzuei galdetuko litzaieke kirol pista hori eraikitzeko proiektua nola egingo luketen auzoan kirolari dagokionez dagoen arazoa konpontzeko. Plaza berregituratzaileari dagokionez, plan orokorraren berrikuspena aukera ona edo aukera onena litzateke hori planteatzeko.

Juanma Ibarretxek adierazi du biribilgunea igarota landarez betetako eremu bat dagoela eta eremu hori bera balia litekeela auzorako sarbide gisa; gazteen beharrei erantzuteaz gain, askotariko kiroletarako pista ere egin liteke.

Auzoko batek adierazi du Europako Parlamentuaren ebazpen batek dioela amiantoarekin kontaktua izatea, kontaktu txikia izan arren, ez dela eragin

gabea, baina Udalaren, Hezkuntza Sailaren nahiz Latioarro ikastetxeko IGEaren arteko bilera batean Udalak adierazi zuela ez zegoela inolako arriskurik 2013ko txosten bat oinarri gisa hartuta. Dena den, txosten horretan ez ziren igarobideak ebaluatu eta Novotec enpresaren txosten berrian oinarrituta, arriskurik ez dagoela esaten jarraitzen du Udalak. Auzokoak erantsi du Novotec enpresak 2013an nahiz duela gutxi egindako txostenak ez direla serioak, airearen laginak hartu behar direla eta, azkenik, galdetu du Udalak asmoa ote duen hori egiteko.

Jonan Altubek erantsi du gobernu taldeak nahiko zorrotz tratatu duela beti gaia, eta bizkor jokatu egin dutela; ikastetxeko ordezkariekin bildu dira, zuzendaritzakoekin, eta joan nahi izan zuten guztiekin, idatzia jaso zen astean bertan. Gainera, erantsi du eurek ez dutela inoiz esan amiantoaren kontuan zero arriskua dagoenik, euren ustez herrialde honetan ehunka lagun hil dituen elementu oso arriskutsua dela inolako informaziorik gabe lan egiten zelako edo kontaktua izaten zelako horrekin eta Udalak badakiela udal instalazioetako zeintzuetan dagoen amiantoa eta non dagoen fibrozementua, langileen osasuna zaindu behar duelako eta gai zehatz honetan erabiltzaileen ikuspegitik jorratu dutela gaia. Bestalde, adierazi du bere ustez ez dela gauza bera egiten ari dena badakien langile baten kontaktua amiantoarekin, ume batena, irakasle batena edo instalazioen beste erabiltzaile batena, eta ikuspuntu hori bera aplikatu nahi izan dutela. Gaineratu du txostenetan adierazten dena egin dela eta gaia ahal bezain laster argituko dela; 2013ko txostenari dagokionez, igarobideak ez zituela aipatzen eta, horrexegatik eskatu da igarobideak kontuan hartuko dituen beste txosten bat. Azken txosten horrek adierazten du gaur egun ez dutela arriskurik planteatzen, ez du adierazten amiantoa arriskutsua ez denik, baina instalazioak euren bizitza erabilgarriaren amaierara iristen ari direla dio eta horrexegatik kenduko dira. Eusko Jaurlaritzak esaten duena da deialdia aprobetxatzeko ikastetxe publikoetan obrak egiteko, besteak beste, obra hau planteatzeko eta finantzazioaren zati bat lortzeko.

Auzokide batek galdetu du egoitza berrituko bada bestearekin partekatzeko ote den edo zertarako den.

Jonan Altubek adierazi du egoitza berritzeko proiektua baino ez dela jorratu, baina ez dela erabilera tratatu. Hala ere, gobernu taldearen asmoa da, gutxienez proposamen gisa, kulturarekin erlazionatutako erabilera ematea, batez ere, musikarako etab. Hortaz, ez da egoitza gisa erabiliko, baina badago aukera eraikin berean, garai batean garbitegia zenean, hormarik gabeko lokala egiteko, esaterako, Landaluzeko auzokoak han biltzeko, baita Arrañoakoak ere, gaztelua konpontzen ari diren arren, garbitegia zena ere erabili ahalko luketeleko. dena den, proposamen nagusia da musika taldeek eta abesbatzek erabili ahal izatea, San Roke Musika Elkartearen barne, Gardean egon zirelako eta gaur egun, Zubiko Etxean daudelako aldi baterako. Haiek ere lokal horretara joan litezke. Datorren

urteari ekiteko proiektu anbizotsua da eta 2.000.000 eurotiko gorako inbertsioa dakar.

Auzokide batek azaldu du 2015eko apirilean Pagolar kaleko aparkalekuak pintatzeko eskatu zela, denborak aurrera egin duela eta oraindik ez direla pintatu. Halaber, kale horretako espaloi guztiak beheraguneak egiteko eskatu zen, gurpildun aulkiak, umeen orgatxoak eta abarrak igaro daitezen eta bereziki azpimarratu du oso arriskutsua den eremu bat, Pagolar eta Arantzar kaleak batzen direnekoa, supermerkatuko sarreraren ondoan. Gainera, adierazi du zebrabide batzuk txarto daudela orgatxoak, gurpildun aulkiak eta abarrak handik igarotzeko eta eskatu du pertsonak eta ibilgailuak zikintzen dituen erretxina jariatzen duten zuhaitz batzuk kentzeko, garai batean pare bat edo kendu egin zirela. Horrez gain, esan du eremu horretan beste bankuren bat ipini daitekeela, baita JEZ enpresaraino iristen den pasealekuan ere eta galdetu du tunel zaharraren erdian baranda bat instalatzeko aukeraz, auzora sartzeko eskaileretan. Bukatzeko, gogora ekarri du iaz Oketa kalea asfaltatzeko eta sartzeko bi kaleak oinezkoentzako kale bihurtzeko eskatu zela.

Jonan Altubek azaldu duenez, batzuetan ezin dira eskaera batzuk bete, ez direlako arau batzuk, neurri batzuk edo itsuentzako betekizun batzuk betetzen, besteak beste. Auzoan sartzeko tunelari dagokionez, ezin da egin geltokiko tunelarekin egin den gauza bera, baina ahal beste hobetzen saiatuko dira; barandarena ikusiko da eta Zubiko Kurajoko obraren barruan, hirugarren fasean, eta obraren egikaritzean, hainbat kontu konponduko dira eta horien bidez sarbidea hobetuko da, argi gehiago ipiniko da eta gero beste era batean margotuko da, zabalagoa dela eman dezan. Latorrondoko proiektuari dagokionez, iaz auzokideekin bilera egin zen Osoko Bilkuren aretoan, eta orduan esan zenez, proiektua onesteak ez du inplikatzeko lanak berehala hasiko direnik. 400.000 euro inguruko kostua zuen proiektua dago eta, oro har, planteatzen dena da Latorrondo aldean, Oketa kalearen parean mantentze- eta hobetze-lanak egiteko Udalak lur partikularretan sartu behar du. Irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dira, Oketa kalea asfaltatu, argiztapena hobetu, oinezkoentzako eremua egin etab. Proiektua onetsita dago eta onetsi izanak esan nahi du asmoa dagoela egikaritzeko. Une honetan 2018ko Obren Foru Plana programatzen ari da eta hori egiteko aukeretako bat da, baina, gaur egun, ez dago obra hori egiteko diru-partidarik eta ez dago epe laburrean programatuta.

Auzokide batek esan du atzo, Asudiotik paseatzen, uralitazko andel abandonatu bat ikusi zuela eta Kamaraka kaleko tunela udal txizalekua dela. Galdetu du kamera bat instalatzerik ote dagoen jendeak han txiza egiteari utzi diezaion.

Obren udal arduradun Joseba Solaunek azaldu duenez, uralitazko andelari dagokionez, gaia kudeatzen duen enpresarekin ados jarriko dira ken dezaten eta erantsi du hori egiteko lanik kostua dutela.

Auzokide batek galdetu du Kamaraka kaleko gaztainondoak inausi ote daitezkeen, 20 metrotik gora neurtzen dutelako eta argi asko kentzen dutelako.

Jonan Altubek adierazi du pertsona batzuek zuhaitzak inautesteko eskatzen dutela eta beste batzuek ebakitzeko, zuhaitzen gaia arazo gisa ere ikusten delako maiz, argi faltagatik, eltxoengatik, erretxinengatik etab.

Laura Castresanak adierazi du zuhaitz batzuen kasuan inautestak zuzenean dakarrela zuhaitz horiek kentzea, eta erantsi du eztabaida ez dela inautestaren ingurukoa, kentzearen ingurukoa baizik, inautestean adarrak baino ez direlako kentzen, baina altuera jaisteko enborra moztu behar dela eta horrela azkenean lehortu egiten direla.

Jonan Altubek azaldu du Udalaren jarrerak zuhaitzak zaintzearena izan behar duela, behintzat, segurtasun edo osasun arazoengatik ez badira kendu behar.

Auzokide batek adierazi du Kamaraka kaleko goikaldeko kaleargiak oso zikin daudela eta Eskutxi kaleko 1. zenbakian dagoen estalpean, ez dagoela argirik eta dena oso zikin dagoela, baita tunel berrian ere, han armiarma sarek betetako kaleargiak daudela.

Auzokide batek galdetu du auzokideek eskatu ote duten Latiarron eremu bat mugatzeko txakurrak handik aske ibiltzeko.

Jonan Altubek erantzun dio Latiarron zehazki ez dela eskatu, baina udalerrirako eskatu egin direla, eta Laudio Udalak baduela Osoko Bilkuran onetsia txakurrek aske jolastu ahal izateko eremu bat, loturik egon behar izan ez dezaten; ez da izango euren sabel-beharrak egin eta ez jasotzeko gunea eta horrelakoren bat Latiarron ere egin liteke. Gaiari dagokionez, web-orrian, “hobetu herria” atalean, kexa ugari dagoela txakurren gorotzaren kontuarekin, batez ere, herriko zonalde zehatz batzuetan.

Alkate udalburu Jon Iñaki Urkixok azaldu duenez, eskaeraren funtsa dela kaka ez jasotzea, eta erantsi du txakurrek jolasteko eremu bat egon arren txakurren kaka jaso egin behar dela.

Auzokide batek galdetu du San Martinen sartzeko eremua hobeto konpontzea aztertu ote den, zulo gehiago ager ez daitezen.

Jonan Altubek erantzun du San Martineko instalazioak ehuneko ehunean konponduta daudela, adabakiekin bai, eta horren arrazoia izan dela Udalaren bereraren eta instalazioak erabiltzen dituzten klubuen aurreikuspen eta baliabide falta; horren ondorioz, adabakiak jarri eta konponketa txikiak egin behar izan dira sarbideetan, instalazioetan etab.

Auzokide batek adierazi du zebrabide batean baino gehiagotan ura metatzen dela eta auto bat igarotzen denean oinezkoak blai eginda uzten dituztela. Galdetu du zerbait egiterik dagoen.

Jonan Altubek esan du Udalaren kezka nagusia dela zebrabideetan gauez ondo ikustea, batez ere, euri egiten duenean; hori bai, lantzen ari da.

11 gizon, 5 emakume eta kazetari bat bertaratu dira.